



Erantzun eta balorazio ezberdinak Euskal Herrian

Ardanza: «Gerra abuztuaren 2an hasi zen eta ez gaur goizaldean»

Anasagasti EAJko diputatuaren ustez Espainia jarrera zuzena izaten ari da

Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakariak adierazi duenez, abuztuaren 2an hasi zen gerra, eta «defentsa lejitimoan» jokatu baino ez du egin orain nazioarteko komunitateak. Hala ere, epe motzekoa izango dela uste du Golko Pertsikoan piztu den gerra.

GASTEIZ

«Gerra abuztuaren 2an hasi zen eta ez gaur goizaldean» adierazi zuen atzo Jose Antonio Ardanza, Gasteizko Jaurlaritzako iharduneango lehendakariak. Bere ustez, Irakek Kuwait erasotzerakoan piztu zen gerra, «orain hasi dela onartuko bagenu eta beraz horren ardura nazioarteko gizarteak duela pentsatu, Bigarren Mundu Gerra herrialde demokratikoak hasi zutela Hitler-en kontra onartuko genuke», esan zuen atzo Ardanzak.

Bere ustez, «defentsa lejitimoan erantzun behar izan dio nolabait ere Iraki nazioarteko komunitateak». Gatazka hau lehenbaitlehen bukatzea desio duela esan zuen Ardanzak, eta denbora luzez iraungo ez duenaren esperantza duela.

Golko Pertsikoan gertatzen ari denari buruz gobernu zentrala ez dela ari elkarte autonomo desberdinak



Jose Antonio Ardanza, EAEko lehendakaria.

informatzen azaldu zuen Gasteizko Jaurlaritzako buruak, baina alderdi politiko desberdinek, eta horien artean EAJk, jaso dutela berririk Madriletik. Beste iturri batzutatik jasotako informazioa ere baduela EAJk esan zuen, eta gerra hasi aurretik, gertatuko zenaren jakinaren gainean zegoela.

**ESPAINIAK
JARRERA
ZUZENA**

«Gauza hauek nola hasten diren badakigu, baina inoiz ez da jakiten nola amaituko diren» adierazi

zuen Iñaki Anasagastik, EAJk Madril-en duen diputatuak. Hala ere, ez asaldatzeko eskatu zien euskal herritarrei, «gatazka hau ez luzatzeko baldintzak badaudelako».

Gerra notizien aurrean Espainiako Gobernuak izan duen jarrera «zuzena» izan dela uste du EAJko Madril-eko bozeramaleak. «Enbargoa bete izan dadin bijilantzia lanak burutzea zuten helburu espainiar tropek eta horretarako zuten lekuan daude, ez azken gertaeren lekuan» azaldu zuen Anasagastik.

EMK-LKIk: «ordenu berria dago jokoan»

BILBO

EMK eta LKI alderdiek gerra geldiarazteko aldarrikapena egin zuten atzo igorritako komunikatu batetan. Alderdien eritziz, Golkoko gatazkan asko dago jokoan. «Alde batek beharbada ehundaka mila lagun bizi eta bestetik Ekialdeko herrien gainbeheratik sortutako ordenu berriaren argiztapen praktikoa».

EAEko segurtasuna aztertze bilerago bernadoreek

GASTEIZ

Euskal Autonomi Elkarteak herritarren segurtasuna koordinatzeko onartu dituzten neurriak zehaztu zituen atzo J. M. Egiagarai, gobernu espainiarrak EAEn duen ordezkariek gobernadore zibilekin. Zentru ofizial, enpresa, «zenbait leku estrategiko», aireportu eta mugetako segurtasuna ziurtatzeko neurriak aurretiaz ari zirela prestatzen adierazi zuen Egiagarai.

HB: «Ezin da ahaztu gerra hau petrolioa kontrolatzeko dela»

DONOSTIA

Herri Batasunak esan du hasi berri den gerra hau petrolioa kontrolatzeko baino ez dela. «Herri arabiarra ez da Euskal Herriaren etsaia, eta ezin dugu ahaztu gerra hau petrolioa kontrolatzeko dela» adierazi zuen HBk. Gainera, gerra honen bidez EEBBen nahia herri pobreak kontrolatzea dela azpimarratzen du. «Hasi berri den gerra, Irakeko herri eta estatuaren kontrakoa da, eta horrekin batera eskienitako informazioak herritarren artean hilik ez direla izango sines-

tarazi nahi digute» salatu du HBk. Bestalde, iparamerikarrek munduko potentzia militaristena eta maltzurrena direla azpimarratzen du ezker abertzaleko alderdiak. «EEBBek dira Vietnam eta Corea eta Latinoamerikako herriak erasotu zituztenak, armen ugalkortasuna indartu dituztenak eta Israel eta mundu zabaleko diktadoreei babesa eman diotenak» dio HBk. Madril-eko gobernuak babesa eskeintzen ari da Bushen armadari, abioien garraiorako babesa eta infraestruktura eman diolako HBren ustez.

Bakerako armadarik ez dagoela ikusi da Golkoan, EAren ustez

GASTEIZ

«Eusko Alkartasunak, alderdi bakezale eta antimilitarista gisa, ezin du Golko Pertsikoko gerra onetsi, hau ekiditzea gure esku ez badago ere» dio EAK atzo kaleratutako idatziak. Gerra piztuarazi duena Saddam Husseinen jarrera izan dela uste badute ere, EAKoek «tamalgarri deritzogu gerra geldiarazteko diplomaziak azaldu duen gaitasun ezari». Halaber, «Justizia eta askatasunaren

idealak baino interes ekonomikoak piztuarazi dutela gerra» esaten da komunikatuan. Armada guziak bakearen izenean erabiltzen diren arren, «azkenean beti gerra egiteko izaten direla» uste du EAK eta ondorioz, «Armadarik gabeko gizartean alde borrokatu behar dugu».

EAK Kuwait, Kurdistan eta Irakeko herriekiko elkartasuna adierazten du, «beraiek izango bait dira zigortuenak, euren eritzia ere azaldu gabe gerran murgilduak direnak».

Nafarroako Gobernua Golkoko gerra ekintzen alde azaldu da

A.U. / IRUNEA

Nafarroako Gobernuak, Golko Pertsikoko gerrak eragin duen nazioarteko egoera aztertu ondoren, gizarte nafarrari zuzendariko manifestoa kaleratu zuen atzo.

«Nazioarteko komunitateak Golko Pertsikoko gatazkari irtenbide baketsua emateko egin dituen saio guztiak alferrikakoak izan dira, sistematikoki Irakeko erregimen erasotzailearen intransigentzi irrazionalarekin topo egin dute eta» hasten da

komunikatua. Jarrera horren ondorioz kuwaitar lurraldea askatzeko gerra ekintzei ekin zaiela dio idatziak, ekintzon aurrean «Nafarroako Gobernuak Nazioko Gobernuak hartutako erabakiekin bat egiten duela» gaineratuz. Halaber, gerra lehen bait lehen buka dadin eta ahalik eta heriotz gutxien izan ditzeten nahi duela esaten da idatzian.

Azkenik, «Ekialde Erdikoan benetako bakea lortzeko Nazioarte Bake Konferentzia» eskatuz amaitzen du Nafarroako Gobernuak.

EE: «Nazio Batuen erabakiak bete egin behar ditu Irakek»

BILBO

Ramon Peñagarikano Euskadiko Ezkerraren Kanpo Harremanetarako arduradunak atzo agertu zuen bere alderdiaren ustez bakea lortzeko halabarrezko pausua Irakek NBEn erabakiak betetzea dela. «Guk beti esan dugu Nazio Batuen erabakiak aurrera eramane behar direla eta gerra aurrera joan arren Irakek Kuwaitetik kanpora alde egin behar duela».

Honekin batera, EEko ordezkariak agertu zuen Ekialde-Ertainari

buruzko Nazioarteko Bilkura burutu beharko litzatekeela, baina beti ere Irakek Kuwait uztea izanik lehen pausua. Nazioarteko Bilkuran Herri Palestinarraren arazoa ezezik, bestetzu ere aztertu beharko lirateke, «hala nola Libanoko egoera», Peñagarikanoren arabera. Nazioarteko Indar Militarrei buruz, Peñagarikanok ziurtatu zuen hauek ere erretiratu egin beharko litzatekeela, baina hau ez litzatekeela gertatu behar Irak Kuwait-tik erretiratzearekin batera, hurrengo pausu gisa baizik.



**EUSKAL
KULTURAREN
BATZARREA**

EKB osatzen duten erakunde, elkarte eta talde guztien elkarlanari esker euskaltzalegoari bere zerbitzuak eskaintzen dizkio:

- Aholkularitza Juridikoa
- Prentsa Boletina
- Dokumentu Zentrua
- Euskaldunaren Hizkuntz Eskubideen Gidaliburua
- BAT/Soziolinguistika-Aldizkaria
- Herri mailako lanerako Planifikaziorako Orientabideak
- ...

Baleazaleen kalea 12, 1-A
20011 DONOSTIA
TL. 46 66 76 / 50. FAX-a 46 68 94